



Urrikoa

Urrikoa

irudiak:

IRRIMARRA ilustrazioa

ipuina:

Yolanda Arrieta



BOOKTEGI

Guztion liburuk, guztiontzat

booktegi.eus

Bazen ipuin kontalari bat mila eta bat ipuin zekiena.
Bazekien arrantzaleena, bazenien baserritarrena, bazekien
kaletarrena, bazekien herritarrena, bazekien hiritarrena,
bazekien zerutarrena... Mila eta bat ipuin zekien kontalari
hark, eta horrexegatik hots egiten zioten denek, ospakizunen
bat zegoen aldiro.




Urriko goiz batean, ordea, etxetik irtetean, estropezu egin eta muturrez aurrera erori zen, airean bira bat eta erdi emanda.

—Ai ene!

Hori esan eta kaput!, konortea galdu zuen! Esnatzean, ez zuen ipuin bat bera ere gogoratzen.

—Urria hilabetea eta urria nire burua ere! —esan zuen, oroimen eskasaz jabetuz—. Gauza bakar bat daukat gogoan, bakarrik: afal ostea alaitzera joan behar dudala errege-erreginen jauregira. Baina zer esango diet?!



Neska kontalaria itsas ertzera hurbildu zen burua freskatzera.

—Haize! —oihu egin zuen, buruko zapia erantziz—.
Emadazu, arren, kontu bat! Zapian gordeko dut nik!
Haizeak putz egin, eta ipuin hau bidali zion:



Udazken hartan inoiz ez bezala astindu
zuen adatsa haizeak.

Kaio guztiak lehorrera abiatu ziren zeharo
ikaratuta. Bat izan ezik: kaiokume bat.
Gurasoak galduta zeuzkan eta noraezean
zebilen.



Bat-batean, itsasoko lamia batekin topo egin zuen. Lamiak itsasoko belarrez eta arrain-zatitxoaz egindako papila eman zion kaiokumeari, zatitxoak aurretik bere ahoan txiki-txiki eginda.



Handik aste batzuetara,
kaio-kumea kaio gazte bilakatu
zen eta kostaldetik basora egin
zuen txango, lehen aldiz. Bueltan
masusta bat ekarri zion lamiari,
esker onez.

Denbora pasatu zen. Lamiak
lurreko fruituak jaten ikasi zuen
kaioari esker. Kaioak, ur azpiko
alga-mota guztiak dastatu zituen
lamiari esker.

Azkenean, ostatu bat ireki zuten
irla batean, galduta dauden izaki
guztiei jaten emateko, eguraldi
onari itxaroten dioten bitartean.

Kaioa eta itsasoko lamia oso
gustura bizi izan ziren.



Neska kontalariak buruko zapien gorde zuen haizeak oparitutako ipuina.

—Nola eskertu hainbeste hitz? —galdetu zuen, gero, zapia berriro buruan jarriz.

Haizeak beste putz batekin erantzun zion:

—Zabaldu ipuina eta segi zure bideari!





BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eu